

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Barkos Lehendakariak adierazi du Nafarroa etorkizunari aurre egiteko hobeto prestatuta eta indartsuago aurkitzen dela

Urte-amaierako mezuan, gizarte-kohesioa, elkartasuna eta partekaturiko esfortzua eskatu ditu iritsi daitezkeen mehatxuen aurrean

Ostirala, 2018.eko abenduak 28

Nafarroako Lehendakaria den Uxue Barkosek [urte-amaierako mezuan](#) adierazi du Nafarroako gizartea gai dela etorkizunari aurre egiteko, zutabe indartsuen eta sendoen egonkortasunak ematen duen segurtasuna izateagatik, gizarte-kohesioa, elkartasuna eta partekaturiko esfortzua bezalako balioetan oinarritzen delako. “Balio horiek iritsi daitezkeen mehatxuen aurrean ditugun gure armarik onenak dira”, adierazi du.



Nafarroako Lehendakari Uxue Barkos urte-amaierako mezuaren une batean.

Zehazki, Barkosek nabarmendu du Nafarroa egun “hobeto prestatuta eta indartsuago” aurkitzen dela. Halaber, gogoratu du Foru Komunitateak “egonkortasun politiko eta ekonomikoaren lau urte lotu dituela”, eta Nafarroako laugarren Aurrekontu Orokorra onartu dituztela aipatu du; “funtsezko erreminta horri esker, urte hauetan zehar, kontuak zuzendu ahal izateaz gain, lehen tasunen aldaketa argia sustatu ahal izan dugu, zerbitzu publikoen kalitatea finkatuaz”.

Ildo horretan, Lehendakariak azpimarratu du urte hauetako egonkortasunak adierazle sozio-ekonomikoak hobetu dituela, baina “ezin dugu horrekin konformatu”; halaber, adierazi du kalitatezko enplegua sortzea dela helburu nagusia, “horretan ari gara eta gure ahalegin guztia egingo dugu”.

Genero-indarkeriaren aurkako borroka eta elkarbizitza

2018. urteari dagokionean, Barkos Lehendakariak bere hitzaldian gogoratu du Nafarroako gizartea kalera inoiz baino gehiago atera den urtea izan dela, gizon eta emakumeen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra eskatuaz, eta diskriminazioaren, jazarpenaren eta indarkeriaren aurkako mobilizazio historiakoak burutuaz. Ildo horretan, honela adierazi du: “ezbairik gabe, 2019an emakumeen aurkako indarkeria gogaikarriaren aurka borrokatzen jarraitu beharko dugu. Eremu guztietan, fronte guztietan egin beharko dugu, baina batez ere arazoari sustraitik

helduta, hezkuntzatik”.

Orobat, gogoratu du 2018. urtea izan dela ETAREN behin betiko amaiera ezagutu dugun urtea, “gure gizarteak aspalditik, aspaldiegi, agerian utzitako eskakizuna”. “Egun, garaia da guztion artean iraganaren memoria kritikoa aurrera egiteko. Izan ere, memoria, iraganeko kontua ez ezik, etorkizuneko ere bada. Eta helburu horretan, elkar aurkitu behar dugu”, adierazi du.

Ikuspegi orokorrago batetik, Barkosek gure ingurunean, Estatuan nahiz Europar Batasunean, gertatzen ari den eraso ere aipatu du; hots, konfrontazio eta gorroto diskurtsoena; “populismo xenofoboa sustatu eta gure eskubideen, askatasunen eta ekitate sozialaren sistema eztabaidan jartzen dute”. Lehendakariak adorea eskatu du, “beldurrik gabe” aurre egin beharreko erronka dela adieraztearekin batera; Nafarroak “gizarte demokratiko, solidario eta irekia bezala egon behar du, den bezalaxe, demokrazia oinarritzakoa eta justizia soziala defendatzeko”.

Nafarroako Lehendakariak, halaber, Ongizate Estatu kaudimenduna eta kalitatezkoa garatzen jarraitzearen aldeko apustua egin du. “Krisiaren urterik okerrenetan gertatutako murrizketen azpiegitura sozialak berreskuratu ditugu, baina jakin badakit ezin izan dugula leheneratze osoa gauzatu. Oraindik badago zer egin”, ziurtatu du.

Barkosek 2019. urterako adierazitako erronken artean, Nafarroa komunitate lehiakor eta berritzaile gisa finkatzea ere agertzen da, ingurumena errespetatzen duena, ekonomia berdeagoa eta zirkularra sustatuta.

Autogobernua

Bestalde, berzentralizatzeko ateratzen ari diren korronteen aurrean, Barkosek bere konpromisoa berretsi du, “foru-erregimenaren eta autogobernuaren defentsa hertsia eta zorrotza eta, aldi berean, leiala eginaz”. Bereziki, eskaera historiko bat gauzatu ikusi nahi duela gogoratu du; hau da, Trafikoaren eta Bide Segurtasunaren eskumena behin betiko berreskuratzea. “Gobernu zentralak zor hori betetzeko aukera du. Nafarroak lana eginda du, eta zorrotza izango da”, adierazi du.

Lehendakariak erronka horiei guztiei “mundura irekitako jarrerarekin” aurre egiteko eskaera egin du. “Une gakoan bizi gara Europar Batasunaren bilakaeran, eta Nafarroak asko du emateko. Gure aniztasuna, gure dibertsitatea, aukera onenatariko bat da. Gure nortasun berezia defendatu eta eszenatoki orokorrean geure ahotsa eduki behar dugu” adierazi du.

Azkenik, Lehendakariak ondorengo adierazi du: “beste urte bat dugu aurrean, eta helburu komuna: Nafarroa modernoagoa eta oparagoa eraikitzea, gizarte eta lurralde aldetik kohesionatua, integratzailea, berritzailea, dinamikoa, solidarioa, elkarriketarako irekia, kaudimenduna eta iraunkoragoa. Guztion artean Nafarroa hobea lortzeko urtea”. [.MensajeFindeAño20182.pdf](#)